

Jose Luis Ibarzabalen hitzaldia

Eusko Jaurlaritzako Kultura Saileko Kultura Sustatzeko Zuzendaritzako Antzerki arloko teknikari arduraduna eta Euskal Antzoki SAREA-ko arduraduna

“ KULTURA POLITIKAK ARTE ESZENIKOETAN ”

Egun on, berriro. Hitzaldia emateko daukadan denbora mugatua denez ahaleginduko naiz agindutakora moldatzen. Saiatuko naiz azaltzen zertan dautzan Jaurlaritzaren esku-hartze politikaren ardatz nagusia arte eszenikoetan, orokorrean, eta zehazki, ahal den neurrian, kaleko arteetan. Nire hitzaldiak hiru ardatz izango ditu: politikaren helburu lotesleak, helburu horiekin lan egiteko ditugun egitasmoak edo tresnak, eta azkenik, epe motz eta ertainera finkatuko ditugun lehentasunak etorkizunari begira.

Gaiari sakonki heldu aurretik, kulturaren euskal planak dituen bi gai aipatzea gustatuko litzaidake: kultura sistema-azpistema kontzeptua. Eta kultura balioa ere. Eta irakurriko ditut kontzeptuok, kultura plan horren barruan agertzen diren bezala. Lehen kontzeptuari dagokionez, kulturaren euskal planak euskal kulturaren sistemaren barruan hiru esparru edo azpistema finkatzen ditu: kultur ondarea, sormena eta espresio artistikoak; eta azkenik kultur industriak, bakoitzak esparruak, helburuak eta funtzionamendu modu propioak dituelarik; hori bai, elkarren arteko loturarekin. Horrela, arteen alderdi bat, denboraren poderioz, ondare bihurtzen da, arteetarako inspirazio iturri izanik. Azkenik, kultur industriek arteak behar dituzte euren produkzioarako.

Kultur ondarea, lehen azpistema, herri baten oroimen historikoarekin lotzen da. Materiala edo inmateriala izan daiteke, eta higigarria edo higiezina. Bere helburuak, batez ere, elkarte baten kultur ondarearen babesa, kontserbazioa, berriztapena, balioespina eta hedapena dira. Kudeaketa kultur ondarearen zentro eta zerbitzuen bidez egiten da museo sistemen, artxibo sistemen eta liburutegi sistemen arlo grafikoan, arkitektonikoan, arkeologikoan...Egitura horiek jabego publikoa eta pribatua dute erakundeen babes zabalarekin eta, ia beti, irabazi-asmorik gabe funtzionatzen duen zerbitzu publikoa eskaintzeko asmoarekin.

Bigarren azpistema arteen esparrua da. Bere helburua sormena, produkzioa eta hedapena da hainbat arlotan, hala nola literaturan, ahozko tradizioan, musikan, antzerkian, dantzan, ikus-arteetan eta eskulangintzan. Sormen artistikoa herri-ekimenarekin lotuta dago. Gizartearen kideak dira, hain zuzen ere, arteak sortzen dituztenak, ez administrazioa,

zeinari soil-soilik dagokion baldintzak ezartzea eta hedatzea sormen ekimenak gauzatzeko, eta hedatzea, batez ere, eskulangintza arteen produkzio eredua eta objektuen, espresioen, ekimenen eta mota artistikoen berezitasuna, hori guztia masifikaturiko industria produktiotik desberdintzeko; eta gutxi gorabehera mugaturiko publikoari zuzendurik dagoenez, egitasmo artistikoen errentagarritasun ekonomikoa baldintzatuta dago. Orokorrean bere finantzazioa erakundeen babesean eta babesle pribatuen laguntzan oinarritu behar da.

Eta azkenik, kultur industriren esparruak baditu estandarizaturiko produkzio moduak, industrialak, masiboki erreproduziturako objektuak edota talde handi bati zuzenduta eta merkatu arauak jarraitzen dituzten enpresek eskainita. Ezaugarri horiek dituzte hainbat industria motak, hala nola historiala, fonografiakoa, ikus-entzunezkoa eta multimedia.

Hitzaldi honetan abiapuntu bezala aipatu nahi nuen bigarren kontzeptuari lotuko natzaio, kultura balioari, alegia. Kulturaren euskal planak adierazten du ondasun baten balio kulturala oinarritzen dela, funtsean, bere balio estetiko, historiko edo sinbolikoetan. Nolanahi ere, bere balizko merkatu baliotik haratago. Kultura jarduerak balio kultural hori era progresiboan erakusten du kateaturiko prozesu batean, non hainbat fase agertzen den eta sortu ahala desberdinak diren. Kultur politikak ere, bistan denez, kontuan eduki behar dute kultur esparru zabal bakoitzaren balio-katea.

Kulturaren azpisistemen eta balioaren kontzeptuak kontuan harturik prestatu dut gaurko hitzaldia. Alde batetik, azaltzen ari garen sektorea errentagarritasun ekonomikoa lortzeko arazo larriak dituen esparru bat; da darabilen produkzio eredua zaharkitua delako, esperientzia artistikoen berezitasunagatik eta gutxi gorabehera mugaturiko publiko batengana zuzentzen delako, eta horrela, erakundeen babesa beharrezkoa da finantzazioa bermatzeko. Arestian aipaturiko sailkapenean oinarrituriko baldintzapen hori, ez da modu dogmatiko edo itxian hartu behar, baizik eta sektoreko beharrian orokorrak finkatzen dituen karakterizazio moduan. Bigarren baldintzapenari dagokionez, kultur politikak balio-katearen multzoa kontuan hartu behar du.

Eta hementxe lotuko natzaio arestian aipaturiko bigarren atalari, kontuan harturik Eusko Jaurlaritzak dituen helburuak. Asmoa ez da Eusko Jaurlaritzaren kultura sailak finkaturiko helburuen aipamen zehatza egitea, sektorean egindako esku hartzearen helburu egituraturik gabe. Eskema horri atxikirik prestakuntza alorrean, aipatu nahi nuke Euskadin arte eszenikoetan ditugun hutsune nagusietariko bat dela. Sektoreak dituen prestakuntza beharri aurre egiteko, erantzun global eta arautua emateko beharra bolo-bolo dabilen gaia da; edozein eztabaida-leku, topaketan aldarrikapen hori hitzetik hortzera darabilte.

Behar hori kulturaren euskal planean ere aipatzen da eta kultura saila ahal duen guztia egiten ari da hezkuntza sailak, eskumenaren jabeak, hain onartu eta zabaldua dagoen aldarrikapen horri erantzuna eman diezaion. Bien bitartean, kultura sailak hainbat laguntza finkatu du, egiari zor, apalak direnak, erkidegoan dauden antzerki-eskolak egiten ari diren prestakuntza ekimenak bultzatzeko.

Sormenari dagokionez, kultura sailaren helburu argiena eta funtsezkoena da balore berrien sarrera erraztea euskal eszenan eta euskal dramaturgiaren finkapena bultzatzea. Administrazioak berebiziko garrantzia eman nahi dio sektorearen sarrera eta berritzeari. Produzekzioaren alorrean lehenetsuna eman nahi diogu enpresa-ehun sendoa garatzeko laguntza eta babesari. Eusko Jaurlaritzaren kultura sailak sortzaileak bultzatu behar ditu, eta produkzio egiturei erraztu euren lanaren garapena, merkatuko legeek ezartzen dituztenak baino baldintza hobeagotan.

Balio-kateari buruz, hedapenaren alorrean bi ardatz ezartzen ditugu: kanpo hedapena eta barne hedapena. Barne hedapenarekin, funtsezko helburua "Euskadiko antzokien sarea" egitasmoa bermatzea eta garatzea litzateke, kudeaketa hobetuz eta dauden baliabideak erabiliz. "Sarea" arte eszenikoak hedatzeko politikan administrazio publikoek dituzten tresnetariko bat litzateke eta, era berean, antzerkiaren sektorean laguntzea eta bere garapena erraztea. Eta kanpo hedapenean, zabaltze politikak atzerriko merkatu berrietan planifikatzea eta garatzea. Funtsezkotzat jotzen du Eusko Jaurlaritzak gure produkzio konpainiak bultzatzea eta babestea merkatu berriak aurkitzeko lanetan, eta/edo daudenak bermatzea.

Eta kulturaren kontsumoari lotuko natzaio, azken kate-maila, balio kate horretan. Helburua publiko berrien sormena bultzatzea litzateke. Era horretan, "Sareak" beti izango du funtsezko helburuen artean kalitatezko programazio iraunkorra arte eszenikoetan, eta horrela publikoaren prestakuntza ahalbidetuko du. Begi-bistakoa da balio kate horien guztien helburuek elkarren arteko lotura dutela eta, era berean, eragiten dutela produkzioaren alorrean eta alderantziz; eta ondoz ondo kate honen kate-maila guztietan.

Eta orain, arestian aipaturiko helburuak lortu ahal izateko esku artean ditugun tresna eta programez mintzatuko naiz. Lehenik eta behin, sormena eta produkzioa. Hori horrela, kultura sailak duen tresnarik funtsezkoena antzerki profesionala arautzen duen agindua da. Bistan denez, goranzko bilakaera egon da bozketan. Baliabideak bikoiztu egin dira. Bilakaera ez da etengabea izan; hau da, hiru urte iraunkorreko zikloak egon dira eta gero diru-kopuru gehiago. Egiari zor, aurrekoak zerikusi zuzena izan du hainbat urtetan izan dugun egoera politikoarekin eta aurrekontu luzapenekin. Baina azpimarratu nahi genuke

zenbakizko etengabeko emaitza hori ez dela agindu horien ondorioa izan, baizik eta aldaketa kualitatiboen eta horien diseinu berriarena. 2003tik aurrera, produkzio agindua ezarri zen eta sektorearen beharrezanek izango dituzten erantzunak mailakatu egiten dira. Labor-labor bada ere, aipatu nahi nituzke euskal dramaturgiaren garapena sustatzeko ditugun laguntzak. Orain arte, lau izan dira, 2 euskaraz egindako testuentzat eta 2 gazteleraz egindakoentzat. Aurten 6, 3 eta 3 izango dira.

Produkzioaren alorrean, argi eta garbi mailakaturiko hiru multzo ditugu, sortu berri diren konpainien produkzioetarako, hau da, hiru urte baino gutxiago duten konpainiek 40.000€ko diru-laguntza izango dute aurkezten dituzten produkzioak bultzatzeko. Banakako produkzioa laguntzeko. Eta azkenik, eta azpimarratu nahiko nukeena, finkaturiko konpainientzako laguntzak. Sektorearen aldarrikapena izaki, Eusko Jaurlaritzak ere ulertu du garrantzitsua dela egonkortasuna eskaintzea enpresei, hain epe motzeko enpresa-politikak egin ez daitezen. Berebiziko garrantzia du tresnak eskaintzeak, epe luzeko estrategiak sortzeko eta, bestalde, bai produkzioa bai banaketa arrazionalago egiten laguntzeko. Mota horretako diru-laguntzak, hurrengo bi urteetako antzerki jarduna bultzatzeaz gain, ildo beretik jarraitzeko asmoa ere badu, baldin eta helburuak eta aurreikuspenak betetzen badira. Egun, bost dira hitzarturiko edo finkaturiko konpainiak, eta aurten seigarrena hitzartuko da. Diru-laguntzek dituzten baldintzapenen artean, aipatu behar da bi urte horietan produkzio bat estreinatu behar dela. Horrela, gehiegizko produkzioa ekiditen da finantzazio egarriak bultzatuta, urtero produkzio diru-laguntza gurpil-zoro horretan sartu behar diren ondorioz.

Laguntzen diseinu eta mailakatzeko lan horrekin batera, diru-laguntzen esleipenerako irizpideen objektibazio lana egin da. Esate baterako, hitzarturiko konpainien multzoan, baremoaren ia %2 dago objektibatuta. Batez ere eskatzaileari dagokionez, hau da, ibilbidea, enpresa-egitura, eta geratzen den herena sektorea bera eta erakundeak ordezkaturik dauden batzorde zabal baten eskutan geratuko da. Banakako produkzioei buruz ari garenean, eskatzaileari dagokion objektibazio proportzioa heren batera jaitsiko da, eta balio handiagoa emango zaio interesari eta proiektuaren kalitateari berari. Neurri horren ondorioetako bat zen sormen enpresentzat askoz zailagoa zela diru-laguntzak eskuratzea eta horrexegatik, hain zuzen ere, sortu zen beste kate-maila bat, sortu berri diren konpainiei zuzenduta. Azken hiru urteotan, aipatu bezala, finkaturiko konpainiak alor honetatik baztertu ondoren, guztira bost, oro har, multzo honetan lagunduriko produkzioak jaitsi egin dira. Ikusten duzuen moduan, azken bederatzi urte hauetan 139 izan dira lagunduriko produkzioak. Administrazioetik, lehen kultura saila izandakotik, lagunduak izan diren aurkeztutako proiektuak eskaturiko %80ko babesak izan dute. Neurri horrekin erakutsi izan dugu administrazioa eta balorazio batzordea proiektuei erantzun egokiak ematen saiatzen

direla eta ez "kafea guztiontzat" delako politika edo banaketa zabalagoa. Uste dugu, hala ere, portzentaje hori hobetu daitekeela.

Kaleko arteei buruzko topaketa batean gaudenez, erakutsi nahi nuen alor honetan ere zein izan den erantzuna, toki ez konbentzionaletan erakutsiko diren produkzioei dagokienez. Azken bederatzi urteotan lagunduriko produkzioak %12 izan dira, urtez urteko aldeak kontuan hartuta. Orokorrean ere, %12ko diru-laguntzak izan dira. Eta eskaerak %76 izan badira, lorturiko portzentajea ere izan da. Eta hori horrela, geure buruari egiten diogun lehenengo galdera izango litzateke ia jasotako eskakizunekin bat datorren, hau da, batzordeak eginiko trataera kaletik jasotako eskakizunekin bat datozen datu horiek... azken bederatzi urteotan, 278 izan dira aurkezturiko emanaldiak, proiektuak, produkzioak eta horietatik 40 izan dira kalean, hau da, %14. Esan bezala, 139 produkzio horietan ez daude hitzarturiko konpainia guztiak, beste multzo batean geratzen baitira... eta 139 horietatik 17 aukeratu ziren, %12 alegia. Hau da, aldea bi puntu gutxiagokoa da, estatistikoki garrantzi gutxiakoa. Eta azken urteotako bilakaera ikusirik, azken hiru urteotako aldea positiboa izan da. Produkzio horiek, orokorrean izandakoekin erkatuta, emaitza askoz hobekak izan dituzte.

Balio katearen hurrengo alorra hedapena da. Arestian aipatu bezala, Eusko Jaurlaritzaren eskumena da, batez ere, gure mugetatik haratago dagokion hedapenari, baina barne hedapenean ere badugu ardura. Bi alor hauen arteko desberdintasuna da, kudeaketa eta administrazio ikuspegitik, kanpo hedapenean eskumena Eusko Jaurlaritzaren esku dagoela erabat, eta barne hedapenean erakundeen arteko egituraketa lanaren beharrean oinarritzen da. Alor honetan parte hartzen duten hainbat erakunde eta eragile publiko daude, hala nola Eusko Jaurlaritza, Foru Aldundiak eta Udalak. Eta hori guztia koordinatzen duen tresna antzerkiaren euskal sarea da. Kanpo hedapenaren alorrari ekingo diot. Arestian aipatzen nuen bezala, kultura sailaren funtsezko helburuetako bat antzerkirako merkatuak bilatzeko konpainiek egindako lana bultzatu eta babestea da. Bi dira ditugun tresna nagusiak; alde batetik Euskal Herritik kanpo antolatzen diren emanaldietarako laguntzak arautzen duen agindua; eta bestalde, antolaketa zuzena edota, behar denean, Euskal Herrian erakusketa-plataforma kolektiboak sortzeko laguntza. Aginduei dagokienez, aldaketa prozesu batean murgilduta gaude. Gero azalduko dizuedan moduan, aurten agindua desberdina izango da. Eta diseinua bera ere zeharo aldatuko da. Orain arte, bi mota tekniko desberdin izan ditugu: alde batetik, euskal erkidegotik kanpo izandako emanaldientzako diru-laguntzak, Amerika alde batera utzita trataera berezia izan baitu. Mota horretako diru-laguntzak baremo objektibatu baten arabera banatu dira, irizpide argiak jarraituz, konpainiaren tamaina, hau da, zenbat kidek lan egiten duten emanaldia kontuan hartuta, emanaldiak hartu duen tokiko prestigioa, batzordeak lau mailatan sailkatzen duena, eta azkenik, jakina, emanaldi kopurua. Hiru irizpide horien arabera, baremoa ezartzen da

diru-kopurua zenbatzeko eta banatzeko, hiruko erregela eta dirua banatzen da. Emaizta onak izan arren, arazo larriak zituen. Alde batetik, planteamendu horrek interesgarriak izan daitezkeen proiektuak babesteko eragozpenak jartzen zizkigun lehia handia zegoelako; hau da, eskaera guztiak aztertzen dira orokorrean eta, horren ondorioz, jasotako diru-laguntzak orokorrean izandako eskakizunen arabera izango dira; horrek ekiditen zuen aurretik hitzarturiko babesak jasotzea, eta askotan, arrazoi hori dela medio proiektu asko bertan behera geratu ziren. Eta bestalde, dinamika horren ondorioz, emanaldi arrakastatsuenak saritzen ziren, sektoreko esku-hartze tresna izan beharrean. Ekitaldi amaierako sari bihurtzen zen. Oro har, 5.000 emanaldi baino gehiago lagundu ziren, horietatik 739 kalekoak izanik, guztiaren %14. Ameriketako izandako emanaldiei buruz, mota hau diseinatu genuenean, gure abiapuntua egindako analisia izan zen, eta urrutiko herrialdeak izanik aurretiko konpromisoa behar zen, horretarako tresna administratibo baten bitartez erantzun egokia emateko. Hitz gutxitan, ez gaude lehia planteamendu baten aurrean, hau da, ez da jasotako eskakizunen arteko lehia, gero balorazio guztiak kontuan harturik diru-laguntzak banatzeko; lehiatik kanpoko metodo baten aurrean gaude, hau da, aurkezten den proiektu bakoitza aztertu egingo da aginduak ezartzen dituen baldintzapenak betetzen dituenetz. Horrela bada, diru-laguntza jasoko du horien jabe izateko zehatz-mehatz ezarritako irizpideak jarraituz. Eta aginduaren arabera, Ameriketako kontratugileak emanaldiaren kostuaren %50 ordaindu beharko du gutxienez, eta bestalde, diru-laguntza jasotzeko mota honetako laguntzen eskaera egin beharko du, edota parte hartu beharko du Eusko Jaurlaritzak babesturiko eta antolaturiko erakusketa-plataformetatik. Tarregako "Euskal Teatro"-z ari gara, Leioako Umore Azokaz, Donostiako Azokaz eta urte honetatik aurrera Kaleartez, eta baita Valladolideko kale-arteetako jaialdiaz ere. Zergatik baldintzapen hori? Koherentzia hutsa, plataforma horiei esker euskal konpainia batzuk aukera izan badute nazioarteko merkatuan euren lanak aurkezteko, oso komenigarri deritzogu parte hartze horren ondorioz proiektu horiek bultzatzeari. Horrela, baldintzapen hori betetzean, diru-laguntzak jasoko dira Ameriketako emanaldiak eskaintzeko, betiere, kontratatzaileak emanaldiaren %50 ordaintzen duenean edota aginduan emanaldiei buruzko eranskina agertzen bada, non zenbait toki baloratuko diren garrantzitsuak izateagatik, proiektuetarako merkatu berrien aurkikuntzan. Hedapen politikarako bigarren tresna euskal antzerkiaren erakusketa kolektiborako sormen-plataformak sortu eta babestea da. Momentuz, lau dira eta lauetatik bi kalekoak bakarrik dira, bat mistoa eta bestea aretoko. Alde batetik, Fira de Tarregako "Euskal Teatro"-z ari naiz. Bestalde, itun bat adostu dugu joan den astean Valladoliden antolaturiko kale-arteetako antzerkiaren nazioarteko jaialdiarekin, eta horren arabera adostu dugu urtero sekzio ofizialean izango dela euskal antzerkiaren atal bat. Aurten, hiru produkzio egon dira: Markeliñeren "Carbón Club", Trapu Zaharraren "" eta Logela Multimediaren "Clank". Eta aurtengo esperientzia ikusirik, uste dut... proiektu batek baino gehiagok izango du aukera jarraitzeko. Proiektu honetan, alde bakoitzak bere gain

hartzen du parte hartuko duten konpainien kontratazio eta ostatu gastuen %50. Plataforma eta azoka horien zuzendaritza artistikoak euskal konpainien aukeraketaren arduradunak dira. Eta gero Eusko Jaurlaritzaren aburuz beste bi plataforma oso garrantzitsu leudeke; hau da, Leioako Umore Azoka kaleko artean eta aurki antolatuko den Donostiako Azoka. Barne-hedapenez ariko naiz, euskal erkidego autonomoaren barruan. Arestian aipatu bezala, osorik barne hartzen duen esparrua da hau, asko direlako eragiten duten erakunde eta administrazioak eta zuzen-zuzenean Eusko Jaurlaritzak. Eremu horretan, Eusko Jaurlaritzak bi tresna ditu, euskal antzokien sarea, guztiok dakizuen moduan Eusko Jaurlaritzak, Foru Aldundiek eta udalek parte hartzen dutelarik. Udalek lekua, aurrekontuak eta programazioa eskaintzen dute. Foru Aldundiak antzokien diru-laguntzez arduratzen dira. Eusko Jaurlaritzaren ardura zirkuituaren koordinazioa, aurkezpena eta hedapena da. Eta bestalde, badago beste tresna administratibo bat, hau da, jaialdien agindua, zeinaren arabera erkidegoko hainbat jaialdi laguntzen diren, hala nola Gasteiz, Santurtzi, Lekeitio, Eibar... Gaur-gaurkoz Sarea ez da kale-arteaz arduratzen, antzoki-sarea da. Azken urte hauetan sendotze eta indartze prozesu batean murgilduta dago. Sendotze prozesu horren ardatza, alde batetik, antzoki berrien etengabeko sarrera da, lehen egon ez ziren Arabako antzokiak barne. Bestalde, badira bi edo hiru urte koordinaziorako bulego teknikoa zabaldu genuenetik. Sarea zabaltzeko prozesuan gaude musikaren alorrean. Historikoki hirurak izan dira antzerki eta dantza sarea. Musika ere barne hartzen du, zirkuitu autonomiko gehienek sartu duten bezalaxe. Eta momentu honetan, PREIrekin izandako elkarrizketen ondorioz, ahalik eta lasterren plazaratu nahi dugun adosturiko ituna daukagu. Eta bestalde koordinazio eta indartze lan horretan lanean jarraitzen dugu antzokiekin, baliabide berri horiekin, emanaldien antolaketan eta berrerosketetan oinarrituriko lan ildo berrietan, aurrea hartzen saiatzen... euskal konpainiek plazaratzeko dituzten proiektu berriek badute antzokien konpromisoa estreinaldiaren ondorengo emanaldiei buruz, eta emanaldiak eurak arrazionalizatzeko lanean buru-belarri aritu beharko dira, eta merkatuak zabaltzeko politika hori modu arrazionalagoan eraman.

Eta nire hitzaldiko azken atalean etorkizuneko aukerez hitz egingo dut. Azalduko dizkizuet epe labur eta ertainerako kultura sailean finkatu ditugun lehentasunak. Argi eta garbi, prestakuntza funtsezko lehentasuna izango litzateke, jakina ahal dugun neurrian. Begi-bistakoa da goi mailako prestakuntza arautuaren beharra erantzun egokia emateko prestakuntza hutsuneei. Produktzioaren alorrean, lehentasuna hitzarmenari eman diogu. Gure ustez, indartu beharreko eredia da. Esan dizuedan moduan, momentu honetan bost dira finkaturiko konpainiak, eta batek berebiziko garrantzia du kale-arteetan, "Markeliñe"-k alegia. Aurten seigarrena sartuko da eta uste dugu hurrengo urteetan zortzira heltzea izango dugula helburu bezala. Horrek, bistan denez, aurrekontu handiagoa behar izango du. Eta azalduko dizuet nola neurtzen dugun diru-laguntza mota hori. Mota horrek 60.000€ko

aurrekontua dauka urtero. Konpainia berri baten sarrerak horrenbesteko diru kopurua eskatzen du. Baina diru-laguntza mota hau ez dugu soil-soilik ekonomikoki indartu nahi, ez dugu sektorea itotzeko tresna izan nahi. Uste dugu hiru urteko eskarmentuarekin lehentasuna izan behar duela aurrekontua handitzeak 60.000€ horietatik, ahal den neurrian, mota honetako filosofia eta planteamenduari erantzun egokiena emateko. Gure asmoa produkzioen kopurua handitzea da, benetako igoera. Bistan denez, mota horretatik ateratzen dugun konpainia bakoitza diru-kopuruaren benetako jaitsiera da. Aurten sei izango dira mota horretako diru-laguntzak jasoko ez dituzten konpainiak, eta horren ondorioz, badago benetako jaitsiera. Kanpoko hedapenari dagokionez, arestian aipatzen genituen ikusten ditugun arazoak, aurten planteamendua aldatu egin dugu eta eredutzat amerikar aginduaren eredia hartu eta orokortu egin dugu euskal autonomia erkidegotik kanpo antolatu diren emanaldi guztietara; hau da, gure asmoa da hau bene-benetako ekimen-tresna bat izatea, tresna sortzailea. Hori horrela, ez da lehen bezala aginduko, non eskaera-lehiaren ondorioz diru-laguntzak banatzen ziren; eskema hau jarraituko du: proiektuen aurkezpena, betetzen al dira baldintzapenak? Bai... bada diru-laguntzak ematen dira. Bistan da horrek segurtasuna ematen diola konpainiari proiektu berriei ekiteko, beste egoera batean ezinezkoak izango liratekeenak. Argi dagoena da Ameriketara zabaltzeak diru-laguntzen mailakatea dakarrela. Eta horrekin batera, saiakuntza moduan diru-laguntzen beste mota bat diseinatu dugu; 24.000€ko diru-kopuru xumea du, antzerki denboraldiak bultzatzea helburua izanik. Proiektu berri horrekin ikusten genuen, batez ere, hiriburuetako denboraldiak proiektu horretatik at geratzen zirela. Eta denboraldi horietan konpainien erronkarik handiena promozionatzeko publizitate gastuak ziren, hain lehiakorra den merkatu horretan euren tokia izateko. Diru-laguntza batzuk eskaini dira finkaturiko baldintzapen berberekin; hau da, 29 emanaldi baino gehiago eskaintzea 200 ikusle baino gehiagoko edukiera dagoen tokian eta x diru-kopuruko inbertsioa publizitatean, eta mota honetatik diru-kopurua finkatzen da. Sustapen tresna bat izan nahi dugu, euskarria, zeina bai administrazioak bai konpainiek bai jaialdiek erabili ahal duten euskaldun guztien sustapen euskarri gisa. Barne hedapenari buruz, arestian aipatu dudanez, Sarea, momentuz antzoki sarea da eta sektoreak berak, behin baino gehiagotan, aldarrikatu du antzoki sarea izan beharrean antzerki sarea izan beharko litzatekeela. Eusko Jaurlaritzak prest dago gaiari buruz hitz egiteko, eta aipatu nahi genuke alde batetik jaialdiak daudela, eta bestetik Sarea. Eta uste dut alor honetan asko dagoela hitz egiteko eta asko lan egiteko, kale-antzerkiaren zirkuitu bat eratzeko. Zentzu horretan, Eusko Jaurlaritzak ondoan egon nahi du, ez aurka.

Eta amaitzeko, kulturaren euskal egitasmoa aipatu nahi nuke. Kulturaren euskal egitasmoaren barruan barne batzorde instituzionala eratu da, administrazio guztiek eta Eudelek parte hartzen dutena. Uste dut barne hedapenari begira koordinaziorako foro politikoa eta teknikoa izateak erantzun egokiak hartzea erraztu egingo duela. Azkenik,

aurten ere sortuko da kulturaren behatokia. Eta udazkenean lan batzordea indarberrituko da. Lehen ikusi ditugun azpisistemen sisteman, arte eszenikoen alorrean lan batzordea indarberrituko da, eta eragile guztiak egongo dira. Bere lehen betebeharra arte eszenikoei buruzko analisia izango da eta hortik aterako diren adierazleak. Baina batzorde horren asmoa ez da kulturaren euskal egitasmoa jarraitzeko foroa izatea, baizik eta Eusko Jaurlaritzaren, eta oro har, erakundeen kultura politiken diseinurako esku-hartze aktiboa izateko foroa.